



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2021eko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- EAEko familien konfiantzaren berreskurapena hoztu egin da
- Estatuko eta EB-27ko familien konfiantzak ere eboluzio berdina izan du
- inguruko herrialdeetako emaitzetan ere islatzen dena



1 EAEko familien konfiantzaren susperraldia hoztu egin da

Urtearen laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza neutrala izan da (0), eta atzera egin du 2021eko bigarren (2) eta hirugarren (5) hiruhilekoetako balioekin alderatuta. Egiaz, konfiantzaren susperraldia hoztu egin da, baina, ongi begiratuta, hiru hiruhilekotan balio positiboak izan ditu, eta pandemiaren aurreko balio berak.


EAEko kontsumitzaileen konfiantzaren beherakada eta, ziurgabetasuna desagertu ahala erregistratutako susperraldia erakusten ditu grafikoaren profilak. Dena den, arrisku-faktoreek hor jarraitzen dute, bai zuzenean pandemiarekin lotuta daudenak (andui berriak eta kutsatzeak, murrizketa berriak), bai haren ondorioekin lotuta daudenak (inflazioa edo susperraldi ekonomiko geldoa). Horrek azaltzen du jarrera eszeptikoago hau.



2 | Estatuko eta EB-27ko familien bilakaera bera

Gutziz kontrolpean ez dagoen pandemia-egoeraren aurrean, zeina pertsonen eguneroko bizitzako muga eta murrizketek islatzen duten, Estatuko eta EB-27ko familiek zuhurtzia mantentzen dute. Ekonomiaren eta enpleguaren susperraldiari eragiten ari da agertoki hori. Jarduera batzuetan, oraindik ere, oztopoak dituzte lehen-eratzeko, eta, nazioartean, eragina izan dute hornidura-zailtasunek eta lehengaien zein produktu energetikoen prezioen hazkundeak.

Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza mailari dagokionez, apur bat ezkorrak dira (-10 eta -7). Aurreko balioak errepikatzen dituzte ia, eta, bi kasuetan, EAEko kontsumitzaileek adierazitako posizioa baino okerragoa dute. Baina, gainera, EAEko, Estatuko eta EB-27ko familien konfiantzak ibilbide bera izan du, eta hobekuntza txikiarekin itxi dute 2021-a. Gutziz amaitu ez den aparteko osasun-egoerak baldintzatzen du hobekuntza hori.



1. IV. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-azaroa batez bestekoa.


3 | eta inguruko herrialdeen emaitzetan ere islatzen da

Kontuan hartutako lau herrialdeetako familien konfiantzak bilakaera bera izan du urtean zehar eta, laugarren hiruhileko honetan, eten egin dute suspertze-ibilbidea. Orokorrean, kontsumitzaileen konfiantza mantendu edo okertu egin da.

Frantziako eta Alemaniako familien konfiantzak ia balio bera eskuratu du, eta negatiboa izaten jarraitzen du (-6 eta -3, hurrenez hurren). Joera bera izan dute Herbehereek, konfiantzak atzera egin eta balio negatiboa eskuratu baitu (-8). Aitzitik, Danimarkako familien konfiantzak maila positiboan jarraitzen du (5), baina kasu honetan ere okerrera egin du (-3 puntu).

Funtsean, herrialde multzo honetako familien konfiantza hobera doa, baina hauskorra da oraindik ere, eta une eta ingurune bakoitzeko egoerak baldintzatu du.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. IV. Hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-azaroa batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak okerrera jo dute
- langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenek hobetzen jarraitzen dutelarik
- dena den, familiako ekonomiaren gaineko konfiantzak behera egin du berriz
- aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak mantendu arren
- EAEko familien konfiantzaren berreskurapena hoztu da

4 | ekonomia orokorrarekiko igurikimenak okerrera egin du

EAEko familiek ekonomia orokorraren bilakaerarekiko dituzten igurikimenak negatiboak dira berriz ere (-8) eta atzerakada handia erakusten dute (-14 puntu), hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Familiek suspertze ekonomikoaren ibilbidearen gainean duten ziurgabetasuna erakusten du horrek.

EAEko familiak eszeptikoagoak dira ekonomia orokorrak datozen hamabi hilabeteetan izango duen bilakaerarekin. Izan ere, egoera ekonomiko orokorrak berdin jarraituko duela uste duten pertsonen pisuak gora egin du (% 41, ehuneko +14 puntu), egoera zerbait edo askoz okerragoa izango dela uste dutenak mantendu egin dira (% 26, ehuneko -4 puntu), eta zerbait edo askoz hobea izango dela uste dutenen multzoa murriztu egin da (% 33, ehuneko -10 puntu).

Igurikimen horiek bat datoz euskal ekonomiak hirugarren hiruhilekoan erregistratutako hazkundearekin (Eustat, Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak, +% 3,9 y +% 1,0 urte arteko tasa eta hiruhileko arteko tasa). Laugarren hiruhilekoko emaitzaren faltan, badirudi BPGaren suspertzea % 5koa izango dela 2021. urte osoan.




5 | enpleguaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, positiboak dira

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenek balio positiboa izaten jarraitzen dute (10) eta hobetzeko joera erakusten dute, hiru hiruhilekotan egin baitu gora balioak.

Hamar pertsonatik ia bostek uste dute datozen hamabi hilabeteetan behera egingo duela langabeziak (% 46), hamarretik hiruk mantendu egingo dela uste dute (% 30) eta hamarretik bik hazi egongo dela (% 24). Horren emaitza da langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenean indizearen balioa. Hala, ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak okerragoak izan arren, langabezia murriztu egingo den ustea gailentzen da EAEko familien artean.

Igurikimen horiek bat datoz EAEn azaroan erregistratutako Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta langabeziaren emaitzekin (976.838 eta 117.779 pertsona). Hala, hobetu egin dira krisi honetako daturik okerrak (946.308 eta 143.229 pertsona, 2020ko apirila-abuztuko batezbestekoa), eta pandemia aurreko mailara iritsi dira datuak, dagoeneko (971.562 eta 117.444 pertsona, 2020ko urtarrila-otsaileko batezbestekoa).




6 | eta familiako ekonomiaren gaineko konfiantzak behera egin du berriz

Pandemian zehar okerrera egin zuten familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko igurikimenek, baina ekonomia orokorrarekiko edo langabeziarekiko igurikimenek baino gutxiago. Erregistratutako suspertzea ere txikiagoa izan zen, eta, balio positiborik eskuratu ez arren, pandemiaren aurreko balioetara itzuli zen (2018 eta 2019). 2021eko azken hiru hiruhilekoetako emaitzak batzen zaizkio ibilbide horri; izan ere, okerrera egin dute emaitzek, argi eta garbi, eta laugarren hiruhilekoan ezkorrak dira (-9).

Emaitza horiei dagokienez, “beldurra” eragiten duten eta igurikimenak okertzen dituzten faktoreen eragina nabarmendu behar da, familiaren gastuetan eragiten baitute. Hauek dira faktore horietako batzuk: faktura elektrikoaren hazkunde orokorra, eta ohiko kontsumoari dagozkion produktuen eta zerbitzuen prezioen hazkundera. Horrek guztiak familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak okertu ditu, ekonomia orokorraren edo langabeziaren gaineko igurikimenak baino sentikorragoak eta zuhurragoak baitira horiek. Gainera, pertzepzioa negatiboagoa bihurtzen da familiaren errentek behera egiten duten heinean

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak




7 dena den, aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak mantendu egin dira

Ekonomia orokorrarekiko eta familiako ekonomiarekiko igurikimenez okerrera egin duten testuinguru honetan, EAEko familien aurrezpenaren gaineko igurikimenak mantendu egin dira, eta, ondoko ondoko hirugarren hiru hilabetez, positiboak izan dira (8).

Ziurgabetasunak pertsonen estrategietan zer inaktu duen erakusten dute datoen hamabi hilabeteetako aurrezpenaren gaineko igurikimenez. Izan ere, pertsonak gastua eta inbertsioa murriztu edo atzeratzen dituzte, aurrezteko. Posible da zehurtiarekin edo aurreikuspenarekin lotutako osagai hori hazten aritzea, eta horrek aurrezteko asmoa bultzatuko luke: EAEko familien % 58k uste dute aurreztuko dutela, eta % 42k ezetz (seguru aski edo seguru, bi kasuetan).

Sektore pribatuak (familiak eta enpresak) EAEko finantza-erakundeetan (Espainiako Bankua) dituzten gordailuen saldoak aurrezpen-jarduera hori islatzen dute: 2021eko lehen sei hilabeteetan % 2,8 hazi zen, eta balio historiko altuetan mantentzen da.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 EAEko familien konfiantzaren susperraldia hoztu egin da

2021ean zehar, EAEko familien konfiantzak gorakada handia izan du, eta ondoz ondoko hiru hiruhilekoetan balio positiboak izan ditu. Dena den, badirudi pandemiaren inguruko ziurgabetasunaren eta haren ondorio ekonomikoaren ondorioz hozten ari dela hobekuntza-ibilbide hori.

Hala, txertaketarekin lotutako helburuak bete diren arren, kutsatzeen intzidentzia gorakorra da, pandemia geratzeko zailtasunak daude (beste kontinente batzuetan) eta birusaren aldaera berriak ari dira agertzen. Hori dela eta, alarmak pizten ari dira, eta kontaktu soziala murrizten.

Dena den, jarduera ekonomikoaren suspertze-joera gailentzen da (mundu mailan), honakoek susperraldi hori lausotzen badute ere: hornidura-arazoak, hornidura-kateen haustura, lehengaien eta energiaren prezioen igoera, eta oraindik ere kaltetuta dauden jarduerak. Horren guztiaren ondorioz, etengabe berrikusten dira (jaisten eta atzeratuta) inguruko ekonomia ia guztien hazkunde ekonomikorako igurikimenak.

EAEko familien konfiantzak balio neutroekin (0) amaitu du 2021a. Izan ere, hazi egin da ekonomia orokorraren (-8) eta familiako ekonomiaren (-9) bilakaeraren gaineko ezkortasuna. Enpleguarekiko (10) eta aurrezpenarekiko (8) konfiantzak balio positiboak izaten jarraitzen badute ere, nolabaiteko baikortasun horrek ez du egoera konpentsatzen.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	IH-21	IIH-21	IIIH-21	IVH-21	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-32	2	5	0	-5	▼
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-48	2	6	-8	-14	▼
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-16	-2	-4	-9	-5	▼
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-56	2	11	10	-1	▶
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-6	4	5	8	+3	▲

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- prezioen gorakada bizkorren igurikimenak ugaritu egin dira
- erosteko unearen inguruko balorazioak okerrera egin du
- “erosketa handiak” egiteko igurikimenak okerrera doaz
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa zertxobait hobetu da
- Igurikimen inflazionistek kontsumoaren berreskurapena “gelditu” dezakete




9 | asko igo dira prezioek gorakada bizkorra izango dutela dioten igurikimenak

2021eko laugarren hiruhilekoan, familiek prezioen bilakaeraren gainean egiten duten balorazioak okerrera egiten jarraitu du (-64, -23 puntu), eta prezioek gorakada handia izango dutela uste dutela erakusten du horrek. Hamar familiatik zazpi uste dute prezioak azkarrago haziko direla (% 74, ehuneko +16 puntu), hamarretik ia bik uste dute orain arte bezala haziko direla (% 16, ehuneko -9 puntu) eta, hamarretik batek, geldoago igoko direla uste du (% 10, ehuneko -7 puntu).

Agerikoa da faktura energetikoaren maximo historikoen hedapen handiak eta gorantz doan beste ia edozein prezio-adierazlek baldintzatu egiten dituztela igurikimen horiek. Nolanahi ere, agerikoa da kostu energetikoak eragina duela KPIan. 2021eko urtarriletik urrira metatutako hazkundea % 4,9koa eta % 5koa izan zen EAEn eta Estatuan. % 1,7ra eta % 1,2ra murriztu den arren (KPI orokorra, produktu energetikorik gabe), handia izaten jarraitzen du eta azken urteetako erregistroetatik (% 1 ingurukoa edo hortik behera) gora kokatzen da.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.


10 | erosteko unearen inguruko balorazioa kaltetu da

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familien konfiantza hoztu egin da. Izan ere, enpleguarekiko eta aurrezpenarekiko igurikimenak positiboak izan arren, ekonomia orokorraren eta familiako ekonomiaren gaineko igurikimenek okerrera egin dute. Faktore erabakitzailea honako hau izan da: prezioen gaineko igurikimenak asko kaltetu direla.

Prezioek gora egin dute eta, gainera, igoera hori oso presente dago hedabideetan. Ondorioz, erosteko unearen gaineko balorazio negatiboa gailentzen da (-21, -5 puntu). 2020an zehar erregistratutako balioen antzeko balioak ditu balorazio horrek. Izan ere, EAEko familia gehienek ustez une hau ez da ona kontsumo handiarekin lotutako erabakiak hartzeko (% 38, ehuneko +4 puntu), edo ez zaie axola (% 45, ehuneko -3 puntu).

Erosteko unearen balioztapena¹



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez

“erosketa handiak” egiteko igurikimena okertu egin da


Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familien artean erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizeak hautsi egin du erregistratutako hobekuntza (1 eta 2, bigarren eta hirugarren hiruhilekoak), eta negatiboa da (-4), baina 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean izandako erregistroetatik (-17, -21, -12 eta -9) oso urrun.

Familien jarrera erakusten du bilakaera horrek, birpentsatu egin baitituzte kontsumoaren gaineko erabakiak. Hala, familien erdiek uste dute haien hurrengo erosketak egungoen berdinak izango direla. Beste erdiek, kontsumoa handituko (% 24) edo murriztuko (% 25) dutela uste dute. Bi multzoak nahiko egonkor mantendu dira azken hiru hiruhilekoetan.

Aldakortasun hau familien kontsumoaren eboluzioan islatzen da (Eustat, Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak), honen emaitza bereizien arren (-% 0,3, +% 7,1 eta -3,9%, hiruhileko arteko tasa, lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan), hobekuntza sendotzen jarraitzen duelarik.

— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹



¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.


² Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat

etxebizitza edo autoa erosteko asmoa apur bat hobetu da

EAEko familien % 1,9k adierazi dute etxebizitza erosiko dutela, hortaz, apur bat hobetu da proportzioa. Metatutako aurrezkiak, inbertsio gisa duen erakargarritasunak edo atzeratutako erabakiek eragin dute eragiketa hauen bultzada. Hala, urte arteko % 13,7ko hazkundera erregistratu da (urtarrila-iraila¹), eta aurreko lau urteetako (2016tik 2019ra) erregistroak hobetu dira.



Ibilgailu bat erosiko duten familien ehunekoa apur bat hobetu da hiru hiruhilekotan (% 8,4), eskari hori ahultzen duten faktoreak mantentzen diren arren (motorizazioa-fiskalitatea, erosketarako laguntza berriei buruzko zalantzak, biztanleriaren zahartzea², etab.). Gainera, faktore berri bat gehitu da: “atzerapen posibleak entregatzerakoan”. Salmenta-datuak ez dira hobetu: ibilgailu berrien matrikulazioa (urtarrila-azaroa, metatua) ez da berreskuratu (-% 16,7 eta -% 38,7, 2020arekin eta 2019arekin alderatuta).



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta).

² Etxebizitza-merkatuan (eta automobil-merkatuan) sartzen hasi dira belaunaldi urriak, 90eko hamarkadan jaiotakoak

13 | inflazio-igurikimenek “gelditu” egin dezakete kontsumoaren suspertzea

Laugarren hiruhilekoan partzialki eten da familien kontsumo handiaren eta inbertsioaren gaineko adierazleen hobekuntza-ibilbidea. Seguru asko, beren familiako ekonomiarekin lotutako igurikimenak okertu izanak (-9) eragina izango zuen horretan, baina, batez ere, prezioek izan dute eragina. Itxuraz...

- EAEko familiak kezkatuta daude prezioen gorakadaren aurrean. Badirudi prezioen gaineko kezka, dagoeneko, gaintu egiten duela hedabideetan hainbeste aipatzen duten faktore energetikoa. Inflazioaren gorakadak baldintzatu egin ditzake kontsumoaren gaineko erabakiak, eta, azkenean, aurreikusitakoa baino apur bat baxuagoa izan daiteke kontsumoa.
- Erosteko ahalmena galtzearekin lotutako igurikimen hori izan daiteke erosteko unearen balorazioa baldintzatu duena; izan ere, berriro ere negatiboa (-21) da. Paradoxikoki, erosketa handiak egiteko igurikimena mantendu egin da, okerrera egin duen arren (-4, -6 puntu).
- Etxebizitza edo autoa erosiko duten familien multzoa hobetzen ari da pixkanaka. Etxebizitzen salerosketen susperraldiak (+% 13,7, urtarrila-iraileko metatua, urte arteko tasa) erakusten du hobekuntza hori. Izan ere, salerosketek gaintu egin dute 2016tik 2019ra tarte berean egindako eragiketa kopurua. Dena den, ibilgailu berrien salerosketak behera egiten jarraitzen du (-% 16,2, urtarrila-azaroko metatua, urte arteko tasa), eta pandemiaren aurreko datuak (2016tik 2019ra) baino % 35 inguru baxuagoa da egungoa.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	I H-21	II H-21	III H-21	IV H-21	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-28	-32	-41	-64	-23	▼
Erosteko unearen balorazioa	-5	-13	-12	-13	2	-16	-21	-5	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-9	1	2	-4	-6	▼

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	I H-21	II H-21	III H-21	IV H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	-32	2	5	0	▼
• Estatua*	-6	-23	-13	-22	-11	-9	-10	▶
• EB*	-6	-15	-9	-15	-7	-6	-7	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-13	-6	-6	-6	▶
○ Alemania*	-2	-10	-5	-11	-4	-3	-3	▶
○ Danimarka*	--	--	6	3	7	7	5	▼
○ Herbehereak*	--	--	-3	-6	3	0	-8	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-48	2	6	-8	▼
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-16	-2	-4	-9	▼
• Langabezia	-4	-41	-8	-56	2	11	10	▶
• Aurrezkia	2	-2	3	-6	4	5	8	▲
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-28	-32	-41	-64	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-13	2	-16	-21	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-9	1	2	-4	▼
Erosketa handiak. EAE.**								
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,3	1,7	1,1	1,9	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	5,3	5,3	6,4	8,4	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	I H-21	II H-21	III H-21	IV H-21	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	-32	2	5	0	▼
Adin-mailak								
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-29	-3	10	5	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-36	7	4	-1	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-30	-2	8	-1	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-30	2	-3	-2	▶
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	-32	5	9	2	▼
• Langabea	-8	-31	-16	-42	-11	-2	-9	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-28	2	0	-1	▶
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-39	-12	-10	-14	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-31	0	9	-2	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-18	13	17	13	▼

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 20	I H – 21	II H – 21	III H – 21	IV H – 21 _p	(azkena)
BPG	-8,1	-2,9	18,6	3,9	--	III hir.
Familien kontsumoa	-10,6	-3,7	22,6	2,1	--	III hir.
Afiliazioa	1,8	-0,7	1,0	-0,4	1,7	urria-azaroa
Erregistratutako langabezia	-7,9	-2,6	-4,6	-3,0	-1,8	urria-azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-1,1	0,3	-1,0	-0,5	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-10,5	24,2	1,8	0,5	--	III hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-17,6	-35,0	22,8	-12,8	-36,7	urria-azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familiaren konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- Azaroaren 8tik 19ra (2021eko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm